Aldaketa HAMASEI .info
Nor gara? Harpidetzak
120. zk. 2006ko urtarrilaren 23a



>>AZALA

# Upel artean gozatzen



**Indarrean dagoen usadioa da. Erritua. Iragan astean eman zioten hasiera sagardotegi denboraldiari, eta, lehortearen eta sagarrondoen gaitzaren ondorioz uzta eskasa izan den arren, kalitateko edaririk ez da sekulan faltako, denen gozagarri. Txotx! egin, eta on egin!**

**Xabier L. Labaieno**




Handitu

Aurreko azalak

Aurreko Zk.

## Euskadi



Batasunari dagokio aurrera egitea
Batasunak urtarrilaren 21ean Bilboko BECen batzar erabakigarria egingo du 2006. urtea Euskadin bakearen urtea izango ote den behin betikoz argitzeko.

Nahasmena eta etenaldia
Hilaren 30a bitarte eten dute 18/98 sumarioari dagokion epaiketa, defentsak frogak aztertzeko denbora izan dezan; prozesuaren inguruko zalantzak ugarituz doaz.

José Menaren altxamendu militarra
Gobernuko presidenteari garestia ateratzen ari zaio Kataluniako Estatutua. PSOEko matxinada taldeari –hala nola, Bonori, Rodríguez Ibarrari, Leguinari, Vázquezi– kargu militarrek Estatutuaren aurka egindako adierazpenak gehitu behar zaizkio. Horien artean José Mena Aguado jeneralak, Ejertzitoaren Lurreko Indarren buruzagiak, eginak nabarmentzen dira; izan ere, Sevillan gustura aritu zen Militarren Pazko egunean. Jeneralaren arabera, Indar Armatuek parte hartu behar lukete autonomietako Estatuturen batek, Kataluniakoak bezala, Konstituzioaren mugak gainditzen baditu.

## Ekonomia



Bioteknologiaren abangoardian
Biobide balizko botika berriak aztertzeko mundu osoko lehenbiziko zentro automatizatua da eta Donostiako Parke teknologikoan izango du egoitza. Hartara, bioteknologiaren abangoardian jarriko ditu Euskadi eta Gipuzkoa.

IGobernua istiluetan sartua, baina jakinaren gainean
Tortila arrautzarik hautsi gabe egitea ez dela posible izaten esaten zuen Carlos Solchagak Industria eta Energia ministro zen garaian Felipe Gonzálezen garaiko lehen Gobernuan.

## Mundua



Ekialde Ertaina: Israel Sharonik gabe
Jeneral zaharra mito bilakatu du gaixotasunak. Baina israeldarrak eta euren klase politikoa ohitu dira borroka politikoko Arik gabeko paisaiara. Buru Kadima izanik, Ehud Olmertekin batera —boto intentzioei buruzko inkestetan lider bezala agertzen dena—, Likud eta laboristek euren jarrerak berregokitu dituzte martxoren 28ko hauteskundeetara begira. Gainera, Sharon ondorengo paisaia politikoan oinarrituta, politika nazionalerako eta gero eta zailagoa den bakea lortzeko bideak eraikitzen ari dira.

## Kultura eta gizartea



Ametsen lantegia
Kafe Antzokiak 10 urte bete ditu Bilboko erdigunean "euskararen nazioa" eta euskaldun izatearen atsegina bultzatzen.

Lurreko Telebista Digitala:Erabiltzaileak du hitza
LTD berriak Espainiako telebista eskaintza handituko du, eta erabiltzaileari botere handiagoa emango dio; izan ere, interaktibitateari esker, nahi duen ikus-entzunezko edukia aukeratu ahal izango du.

"Euskal mozart" gaztea
Bilboko Udalak Joan Krisostomo Arriagaren modernotasuna aldarrikatuko du musikarien jaiotzaren bigarren mendeurrenean.

Pantailako infernua
Sam Mendesen azken filmak, Jarhead, gerraren aurkako zinemaren tradizioa berreskuratu du, baina gudariak erabaki politikoak baino interesgarriagoak dira.

2006KO DANBORRADA Berdintasunaren danbor hotsa
Gabonak pasa orduko, donostiarrek txuri-urdinez apaintzen dituzte bazterrak eta

## Iritzia



• **ASTE HONETAN**
GORKA LANDABURU
**Batasunaren erronka**



• **GANBARAKO GOGOETAK**
DOMINGUEZ MORENO
**Leialtasun urmaelak**

• **IRITZIA**
J. A. ZALDUENDO
**Onartzeak mugak ditu**

• **INGURUMENA**
ZAINDARI
**Europar Batasunak elikagaien segurtasuna sendotu du**

• **EDITORIALA**
**Heroiak ala koldarrak**

urtero errepikatu arren, danborradak ez du indar izpirik galtzen. Aurten gainera are ozenkiago entzungo dira danbor hotsak emakumeen joaldi gogotsuekin, aurtengoa berdintasunaren danborrada baita.

Elkarrizketak



Miguel Fuentes
"Zalea egoera larriaz jakitun Reala laguntzeko prest dago"

Emakumea



Telebistan gainezka egiten dute
'Sexo en Nueva York' arrakastatsuak, orain arte ikusitakoaren aurka, emakumeen bestelako estereotipoa erakusten duten telesailak sortzen lagundu du, betiere emakumea buru dela.

Motorra 21



Peugeot 1007 "Urteko automobila"
Ez da inor iritzirik gabe gelditu "2006. Urteko Automobila" titulua jaso duen ibilgailu honen aurrean. Automobilgintza arloko prentsako profesionalek izendatu dute.

Gutxienezko Erresoluzioa: 800x600
aldaketa@aldaketa16.info